

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Unibertsitatera, behar lukeen prestigioaren bila

Haur eta Gazte Literaturari lotuta, hiru tailer eskainiko ditu Yolanda Arrietak UEUn eta EHUKo Uda Ikastaroetan. Bilbon, Donostian edo Baionan izan, hogeitaz lugetako esperientzia trinkotuko du ikastaro praktikootan. Besteak beste, Haur eta Gazte literaturaren 25 urteko ibilbidea, idazketa sortzailea eta ipuinen kontaketa landuko dira.

| GARBINE UBEDA GOIKOETXEA |

HAUR ETA GAZTE LITERATURAK ez du bestela —alegia, adjektiborik gabe— aurkeztu ohi den literaturaren prestigioa, ez eta hedapena ere. Azpigerotzat jotzen da sarritan, edo hezkuntzaren meneko osagarritzat, arte orori eskatzen zaion moduan emozioak eta sormena lantzen dituen arren. Ilusioan eta magian sinesten duelako egin zuen arlo horren aldeko hautua Yolanda Arrietak, bere gizarterako ekarpena horretan datzala sentitzen duelako. Gogo eta koherentzia horren seinale dugu azken hogeitaz lugetan eskaini dituen ikastaro, tailer, hitzaldi, emanaldi eta eskola mordoa. Batik bat ikas-tetxez ikastetxe egin du bere ibilbide oparo baina diskretua, hutsetik hasi beharrean beti, oinarri-oinarritik, aurrekontu mugatuekin, eta prozesuko zeregin ugari bere gain hartuta, hala nola, ikastaroaren mamia taxutzea, antolakuntza, hedapena, promozioa... Master batek nekez eman dezakeena erdietsi du, beraz, arian-arian: jardunaren gaineko jakituria eta sistematizazioa. Baina non gal liteke urte lugetan landutako ekina transmisiorako antolatu eta kudeatu ezean?

Eskoletan atzera eta aurrera dabiltzaren eskarmentuak ofizialtasuna lor zezan, enbidoa bota zuen Arrietak duela pare bat urte. Ikasleei kredituak ematen zaizkien tokietara heldu beharra zegoela planteatu zuen; unibertsitatetik bideratu beharko litzatekeela “Esperientziaren kudeaketa” deitu zuena. Proposamenak ez zuen aurre-



rabiderik izan —interesgarria izan arren, unerik egokiena ez zela irizten zitzaiolako—, eta bere kasa ekin zion erronkari, une egoki hori iristen zen bitartean. Ahalegin horren emaitza ditugu aurki eskainiko dituen hiru tailerrak: Zelan kontatu ipuinak eta olerkiak haurrei. Nitik gura (Bilbon, ekainaren 27an eta 28an, EHU), Euskal Haur eta Gazte Literaturaz, zer dakigu? (Baionan, uztailaren 10ean eta 11n, UEU) eta Idazketa sortzailea gelan, dinamika, abiapuntuak eta baliabideak (Donostian, abuztuaren 26tik 28ra, EHU).

Lehena, ipuinen kontaketa dagokiona, ahozketasuna gus-tuko duen ororentzat genduke aproposa eta hizkuntzaren barruan gauzak ondo kontatzeak, mintzoaren bidez momentu onak sortzeak duen balio erantsia nabarmentzera dator.

Idazketa tailerra ere, hezkuntzari begira programatuta dagoen arren, erabilpen zabalekoa dugu. Irakurle gazteak literaturara eta literaturgintzara hurbildu nahi dituzten hezitzaileei ez ezik, euskaraz idaztea atsegin duen edonori izango zaio baliagarri, bai eta idazteko ohiturarik ez dutenei ere.



Halaber, aparteko tresna izan daiteke helduen euskalduntze prozesuan diharduten irakasleentzat, ikasleen euskarazko nia indartzen, osatzen eta aberasten laguntzen duelako.

Baionan uztailaren 10etik 11ra eskainiko den tailerrak, berriz, izenburuak aski ongi iradokitzen duenez, galderak eta eztabaida gaiak planteatuko ditu, partaide bakoitzak bere neurriko erantzunak bila ditzan. Esate baterako, zeri deitzen zaion haur eta gazte literatura; zer eskatzen zaion haur literaturari, berez ote den literatura ala eskolari lotuta joan behar ote duen ezinbestean; etika baten barruan sartutako literatur berezituia izan behar duen...

Ikastaro aski trinkoa izango da berez, arlo ugari laburbilduko dituen. Hasteko eta behin, azken mende laurdeneko ikuspegi orokorra emango du Arrietak. Haur literatura aspaldikoa dugu, baina Mariasun Landarekin

batera hasi zen apurka modernizatzen eta literatur kutsua hartzen, eskolatik berezirik ere. 25-30 urteko tartean idazleak, ilustratzaile mordoa, argitaletxeak, programak, elkar-teak, aldizkariak eta, hitz bitan, sistema osoa antolatu da aipatzen ari garen mugimendua-ren inguruan.

Gero, generoz generoko errebasoa landuko du Arrietak. Izan ere, denetarik ugari du dagoeneko euskal haur eta gazte literaturak: ipuin-gintza, poesia, antzerkiak, album ilustratuak...

Ondoren sistema honetan aurkitzen den urrienari helduko zaio, kritikari. Liburuak nola baloratu edo iruzkinak nola egin jakiteko zenbait argibide emango ditu. Irakasleek eta gurasoek ez ezik, 8-10 urtetik gorako haurrek ere lantzeko modukoak izango dira.

Azkenik, Interneteko ozeanoan ez galtzeko erreferentziak, bibliografia eta estekak eskainiko zaizkie parte-hartzaileei. ■ →

Pamiela argitaletxeak,
Kulturaren aldeko Euskal Fundazioaren babesarekin

JUAN ZELAIA **XIII. Saiakera saria**

antolatzen du, euskaraz idatzitako edozein gairi buruzko saiakerak edota iritzi lanak zabaldu eta sustatzeko asmoz.

Saria: 9.000 € · Bidaltzeko epea: irailaren 30a arte

Lanak bidaltzeko: Pamiela etxea (Juan Zelaia Saria),
Agustindarren industrialdea-Soltxate. G kalea - 31013 Iruñea

☎ 948 326 535 · soltxate@pamiela.com · Arauak: www.pamiela.com



2013

Yolanda Arrieta: «Barne mundurik gabe, literatura letrak eta papera besterik ez da»

Haur literatura ez al dago hezkuntzari lotuegia?

Hala hartzen da, orokorki, leku guztietan. Askok diote hezkuntzatik aske ere bizi behar duen arloa dela, eta halaxe behar luke nire ustez, baina errealtatea bestelakoa da. Hemen eskolei esker bizi gara, nahiz eta, Mariasun Landak berriki esan duen bezala, “liburu bat pedagogikoa da ondo idatzita dagoenean”.

Maria Teresa Anduetto idazle argentinarak [Andersen saria jaso zuen 2012an] haur literaturaren balioa eta baloreak elkarren tal-kan jartzen ditu. Hezkuntzarekiko lotura estu hori kalterako dela dio, haur literatura fitxa didaktikoaren menpe jartzen duelako, beti zer edo zertarako balio behar izatea dakarrelako, eta arte orok behar duena ezabatzen diolako. Harekin bat nator, baina gu hemen bizi gara...

Euskal mundu txiki honetan, hain zuzen.

Bai, eta hemen dagoena dago. Hala ere, hezkuntza estrategikoki erabiltzea ongi dago, baina ez dadila izan, demagun, liburu jakin bat berdintasuna lantzeko dela esateko. Berdintasuna egunero landu behar da, liburuak lagun dezake, bai, baina literatura beste gauza bat da. Kate osoa dago jokoan finean, eta ondo legoke irakasleak ere kate horren jakitun izatea. Ematen du gaur gauza guztiek izan behar dutela praktikoa, erabilgarriak. Eta hori ongi dago, baina haurrari irakurtzen ikasteko balio izateaz gainera badu besterik ere. Literaturak, arte guztiek bezalaxe, emozioak landu behar ditu, magia eta ilusioa izan behar ditu. Horiek gabe ez dakit zer den; letrak eta papera, besterik ez.

Haur literaturak ez du ikasketa prozesuetan lekurik.

Handirik ez du. Irakasle eskoletan bada hizkuntza eta literaturaren didaktika, baina hizkuntzari oso lotua dago. Haur hezkuntzako moduluetan, berriz, tarte txiki-txiki bat baino ez zaio eskaintzen ikasgaiari.

Bartzelonan hiru urteko masterra dago. Hor sortzen dira adarrak, bitartekariak, libu-

ruzain finak, irakasleak, kritikariak eta sistema osatuko duten nodoak. Guk horrelakorik ez dugu, baina badugu urtetan lanean dabilen jendea eta, beraz, oinarri-oinarrizko esperientzia. Esperientzia hori transmititzeko modua eratzea litzateke gakoa.

Ikastetxez ikastetxe egin duzu eskola. Zer ikusten da?

Dena ikusten da eskoletan. Ikusten da haurra, irakaslea, gurasoak, hezkuntza sistema, harremanak, zerk funtzionatzen duen eta zer ez... Esperientzia hori non geldituko da?

Zer aldarrikatzen duzu?

Nik neronek ez dut jada ezer aldarrikatzen. Nahi dudana egiten saiatzen naiz eta kito, bestela galdu egiten zara bidean, edo amorratu. Eta nik nahi dudana zera da: umea aurrean denean ahozabalik egotea, eta bitartekaria dagoenean, hura ere, gogotsu eta irribarretsu aditzen ari dela sumatzea. Garaiotan ahalik eta diru gutxienarekin ahalik eta gehien egin behar da, eta hori

esperientziak dakar, neurri handi batean; esperientziak eta informazio gaurkotuak osaturiko oreka dinamikoak.

Haur eta Gazte literatura landu egin behar da, agertu, aldarrikatu eta erakutsi. Bideak eman behar zaizkio jendeari ezagutzeko. Normalizazioa behar du. Normalizatzen dena erabili egiten baita.

Haurrentzako poesia gero eta ugariagoa da.

Eta gainera zoragarria. Bada haur txiki-entzako, eta bada handiagoentzako ere. Izugarri gustatzen zaie umeei, eta gurasoei ere bai, deskubritzen dutenean. Arazoa betikoa da, eskoletan beldur direla, ez dutelako ezagutzen. Narrazioa da nagusi, eta idazketari dagokionez, batik bat, molde jakinetara bideraturiko testugintza.

Album ilustratuek ere gora egin omen dute.

Baina oraindik ez da aski ezagutzen eta gutxi erabiltzen da eskoletan. Haur eta Gazte literatura prestigio txikiko azpigene-

“Haur eta Gazte literatura landu egin behar da, agertu, aldarrikatu eta erakutsi. Bideak eman behar zaizkio jendeari ezagutzeko. Normalizazioa behar du, normalizatzen dena erabili egiten baita”

G.U.G.



rotzat jotzen bada, pentsa zer diren album ilustratuak. Haur oso txikientzat direla uste dute gehienek. Eskoletara joaten naizenean 8-12 urtekoei ere erakusten dizkiet eta gustatu egiten zaie testuaren eta irudiaren kontrapuntua, baina, oraindik, konbentzio orokorrak dio irakurtzea letraz beteriko orri asko irakurtzea dela.

Liburu bakoitza mundu bat dela esaten da.

Bai, baina, ez: liburuak papera eta letrak dira. Liburuak pertsonak egiten dituzte –idazleek– beste pertsona batzuek –irakurleek– disfruta dezaten. Beraz, guk geuk ematen diegu bizitza liburuei. Jendea erre-zeta bila joaten da askotan ikastaroetara, ona zer den galdezka, baina, kontua ez da hain sinplea; ez dago errezetarik. Informazioa eman bai, baina gero, informazio hori norberak kudeatu beharko du, nahien, premien edo ahalmenen arabera. Nork bere errealitatera egokitu beharko du, umeak, egoerak, gustuak edota bizi-prozesuak oso desberdinak direlako han eta hemen. Aitzitik, bilaketa-egokitze prozesu hori polita izan daiteke, sortzailea ere badelako. Beraz, Haur literaturari bere garrantzia emateko eta balorea pizteko izan beharko lukete hiru tailer hauek. Oro har, hiruretan, emozioa landuko da, ilusioa landuko da, hori gabe haurrekin jai dagoelako, eta, nola ez, magia;

“Haur literaturari bere garrantzia emateko eta balorea pizteko izan beharko lukete hiru tailer hauek. Oro har hiruretan, emozioa landuko da, eta ilusioa, hori gabe haurrekin jai dagoelako, eta, nola ez, baita magia ere”.

magia ere, isiltasuna bezalaxe, guk geuk eraiki dezakegulako.

Letrari laguntzen dioten lagun ezkutua ezagutuko ditugu: isiluneen oihartzuna, arreta pizgarria, intriga, emozioa, barne mundua. Lagun horiek gabe, literatura papera baita.

Zer behar izaten duzu zure tailerretan?

Eskoletan leku zabal bat nahi izaten dut. Aulkiak eta mahaia erabiltzen ditut baina oso gogokoa dut espazio librea ere, antzezteko, tente irakurtzeko, mugitzeko, lurrean esertzeko... Helburua ez da isilik eta geldik egotea, nolabait “harrapatuta egotea” baizik.

Literaturaren funtzioa zein izan beharko lukeen azaltzen al duzu tailerretan?

Antropologia ikasi nuenean, tribu bateko jakintsu batek esan ohi zuena iltzatuta gelditu zitzaidan. Pertsonok hiru motatako jana behar omen dugu aurrera egiteko: ogia gorputza elikatzeko, lagunak bihotza alaitzeko eta kontuak arima sosegatzeko. Hortik abiatzen ditut nire tailerrak. Zeren eta, gorputza nola elikatzen den ongi dakigu, oinarri-oinarrian dauzkagu sabela betetzeko erritak, titia nola eman, frutak noiz ematen hasi... Lagunen kontua ere aski jakina da...

Jakin behar ote da arimak zergatik ez duen sosegurik?

Neronek ere galdetzen nuen hori bera lehen, baina orain efektiboagoa iruditzen zait, besterik gabe, ekinez bilatzea, eta hor izan dezake liburuak funtzio laguntzailea. Umeekin, askotan, zeharkako mintzaira behar duzu haiengana heltzeko. Askotan, gauean ipuin bat kontatzen ari zara, eta bat-batean kontuak esaten hasten da haurra, halakok hau egin zidan, edo dena delakoa. Emozioen mundua hor dago, badu bere etxea, eta horretara heltzeko galdera zuzenak ez dute beti balio. Literaturak ez du beti atea zabaltzea bermatzen, baina gerta liteke giltzaren bat gordetzea.

Zer aldatu da hogeitortean?

Gauza asko. Grinak berberak dira; arreta mantentzeko denbora, aldiz, asko laburtu da. Helduei dagokienez, haur literaturak jakinmina pizten du; batik bat, haur txikien gurasoen artean. Esate baterako, aitzak ere hasi dira tailerrak eskatzen. Donostian, Liburuaren egunean emandako hitzaldi-tailerrean erdi eta erdi ziren gizon-emakumeak. Ederki pasatu genuen. ■

